
Euskadiko Parke Teknologikoak hazten jarraitzen du, eta 2025ean guztien artean 9.257 milioi euro, aurreko urtean baino % 12,3 gehiago, fakturatu zituzten 692 enpresa biltzen ditu jada bere campusetan

- Parke enpresek urtero ematen dituzten datuek sektore aeroespazialak (2.787 milioi euro), Biozientziek (505 milioi euro), Soluzio Digital Aurreratuek (1.380 milioi euro) eta Energiak (1.152 milioi euro) duten pisu nabarmena islatzen dute, eta guztiak ere estrategikotzat jotzen dira Eusko Jaurlaritzaren 2030erako Industria Planean.
- I+Gra bideratutako baterako inbertsioa % 30 hazi da, 2024an 660 milioi eurokoa izatetik 2025ean 854 milioi eurokoa izatera igaro baita.
- 2030eko Industria Planeko HAZI eta IRABAZI sektoreetako enpresek fakturazio osoaren % 76 osatzen dute gaur egun.
- Parke Teknologikoko sei campusetan egunero 24.935 pertsonak egiten dute lan, gehienak unibertsitateko tituludunak, baina LHTik datozen profesionalak gero eta gehiago dira.
- Emakumeen enpleguak guztizkoaren % 40an jarraitzen du, eta emakumeen presentzia zuzendaritza postuetan hobetu egin da, % 22,5era iritsi arte (EAEko enpresen maila orokorra baino ehuneko hamar puntu gehiago).
- Instalatutako enpresen jardueraren hazkundeari eta espazioen eskaerari erantzuteko, eta proiektu estrategikoak erakartzeko espazioak erreserbatzeko beharrari erantzuteko, Euskadiko Parke Teknologikoak Lurraldeko bere hedapena bultzatu du, hainbat ekimenekin.

2026ko ekainaren 16a. Euskadiko Parke Teknologikoak bere sei campus aktiboetan instalatutako enpresen kopurua berriro handituz itxi zuen 2025eko ekitaldia, eta 700 konpainietatik oso gertu jarri zen, hau da, marka berria bere jardueraren erregistro historikoan. Zehatzago, abenduaren 31n, 9.257 milioi euro fakturatu eta 24.395 langile, gehienak kualifikazio handiko enpleguetan, zituzten 692 enpresa zientifiko-teknologiko aktibo zeuden bere instalazioetan.

Datu horiek Euskadiko Parke Teknologikoaren Urteko Jarduerari buruzko Txostenaren parte dira, eta adierazle nagusi guztien hazkunde iraunkorra islatzen dute. Hartutako enpresen kopuruak (+% 3), baterako fakturazioak (+% 12,3) eta plantillak (+% 3) igoera esanguratsuak izan dituzte, kasu batzuetan

oso garrantzitsuak, baita I+Gra bideratutako inbertsioaren atalean ere, % 30 hazi baita (854 milioi euro 2025ean, eta 660 milioi 2024an).

Era berean, txostenak agerian uzten du Euskadiko Parke Teknologikoak eta haren sei campusek (Zamudio/Derio, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Leioa, Hernani eta Abanto) posizionamendu pribilegiatua dutela ekonomiaren sustapenerako politiken garapenean, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren 2030eko Industria Planaren barruan estrategikotzat jotzen diren sektoreak (HAZI eta IRABAZI sektoreak) fakturazio osoaren % 76 dira dagoeneko.

Zehazki, sektore nabarmenenak Aeroespaziala, Biosanitarioa, Soluzio Digital Aurreratuak, Fabrikazio Aurreratuak, Energia eta I+G izan dira. Fakturazio bolumenaren arabera, HAZI sektorerik garrantzitsuenak Aeroespaziala (2.787 milioi euro) eta Soluzio Digital Aurreratuak (1.380 milioi euro) izan dira. Enpleguaren arloan I+G sektorea da liderra, 4.710 pertsonarekin, eta ondoren Energia (3.980 pertsona).

Ildo horretan, **Jaione Ganzarain** Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuorde eta Euskadiko Parke Teknologikoko presidenteak adierazi duenez, “I+Gko inbertsioaren hazkundeak berresten du Euskadik datozen urteetako erronka industrial handiei aurre egiteko oinarri sendoa duela. Multicampus ereduaren inguruan egituratuta dagoen gure parke teknologikoen jarduerak herrialdearen lehiakortasunean eta euskal industriak maila teknologiko berrirantz duen bilakaera prozesuan benetako eragina duten proiektu eraldatzaileak bizkortzea ahalbidetzen du”.

Era berean, Ganzarainek aurreratu duenez, “instalaturako enpresen jardueraren hazkundeari eta espazioen eskaerari erantzuteko, eta baita proiektu estrategikoak erakartzeko espazioak erreserbatzeko beharrari erantzuteko ere, Euskadiko Parke Teknologikoak Lurralde hedapena bultzatu du hainbat ekimenekin”.

Talentua eta kualifikazioa

Lanean ari diren pertsonen kopuruan marka berria lortzeaz gain (guztira 24.395 profesional plantillan), giza baliabideei buruzko atalak hainbat interesgune jasotzen ditu. Kualifikazioari dagokionez, lizentziaturak eta doktoregoak nagusi izaten jarraitzen dute –guztizkoaren % 62 dira–, baina, aldi berean, LHtik datozen pertsonen kopuruak gora egin du, eta dagoeneko 6.272 dira.

Aurrerapen hori bereziki esanguratsua da LH/Parke ekimenaren eragina kontuan hartzen bada. Euskadiko Parke Teknologikoak urtero sustatzen du ekimen hori, enpresen eta batxilergoko ikasleen arteko harremana errazteko, aukera zientifiko-teknologikoak aukeratzeari begira. Hala, 2025ean, 1.000 ikaslek baino gehiagok Parke enpresetako batzuk *in situ* ezagutzeko aukera izan zuten, eta enpresa horiek, bestalde, LHn prestatutako profil teknikoak sartzeko interesa helarazi izan diote sarritan Euskadiko Parke Teknologikoari.

Beste datu garrantzitsu bat I+Gn diharduten langileen ehunekoa da, dagoeneko 7.707 pertsona inplikatzeko (2024an 7.369 ziren), eta emakumeen enplegua ere handitu da pixka bat, % 42ra iritsi arte. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da Berdintasun Plana duten 50 pertsona baino gehiagoko plantillako konpainien kopurua % 9,5 hazi zela 2025ean, eta dagoeneko 186 enpresara iritsi dela.

Zuzendaritza postuetan emakumeek duten presentziari buruzko datua esanguratsuagoa da. 2025ean, indize hori puntu erdi hazi zen, % 22,5era iritsi arte, eta hori ehuneko nabarmena da EAEko maila orokorraren % 12rekin alderatuz gero, AEDren urteko txostenean jasotzen denez. Plantillei dagokienez, Euskadiko Parke Teknologikoko enpresetan gizonen eta emakumeen enpleguaren arteko aldeak egonkor jarraitzen du: % 60 gizonak dira eta % 40 emakumeak.

Era berean, aipatu behar da 4.751 langilek 30 urte baino gutxiago zituztela 2025eko abenduaren 31n, eta horrek Parke enpresek talentua sustatzearen, aukerak sortzearen eta plantillak berritzearen alde egindako apustua islatzen du.

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoa

Prentsa Saila

prentsa@parke.eus

T 94 403 95 00